

ERABAKIA, 2023ko MARTXOAREN 16koa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2022 (IV. MODALITATEA) BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2022ko maiatzaren 30ean, UPV/EHUN ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia 2022 (IV. Modalitatea).

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, 2023ko otsailaren 15ean, Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko ebazpena argitaratu zen, eta 10 egun balioduneko epea eman zen kontratua onartu edo bertan behera uzteko eta alegazioak aurkezteko.

Epe hau iraganik, ERABAKI DA Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian argitaratzea emandako eta ukatutako eskaeren behin betiko zerrenda

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eranskinean jasota dagoena.

Bigarrena.- 2023ko martxoaren 17tik martxoaren 22ra bitarteko epea irekitzea, hautatutako pertsonen Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkez ditzaten deialdiko 9. oinarrian eskatutako agiriak, betiere IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da laguntzari uko egiten zaiola.

Inkorporazioak 2023ko apirilaren 17tik aurrera egingo dira.

Hirugarrena.- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

Laugarrena.- Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2021eko martxoaren 16an.

Inmaculada Arostegui Madariaga
Ikerketaren arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Investigación

I ERANSKINA

Emandako eta Ukatutako Behin betiko zerrenda

NAN	KODEA	Batez-beste nota haztatua (0 - 50)	ANEP GUZT IRA (0 - 35)	HIZKUNTZAK EZ OFIZIALAK (0 - 5)	PUNTUAZIOA GUZTIRA	BEHIN BETIKO EBAZPENA
791313***	PIFPAU22/01	45,221	35	10	90,221	DOKTORADUTZA EGITEKO BESTE KONTRATU BATEKIN BATERAEZINA
131717***	PIFPAU22/05	39,260	29	8	76,260	EMANDAKOA DESISTITUA
161009***	PIFPAU22/03	37,640	18,75	8	64,390	EMANDAKOA
120364***	PIFPAU22/04	34,104	26,3	0	60,404	EMANDAKOA
G24686***	PIFPAU22/06	37,028	18	0	55,028	EMANDAKOA